

Hasteko, erabaki dugu proiektua iñauterietan egokitzea. Horretarako, karrozak diseinatu eta ekoizten dituen enpresa ekologiko eta herritar bat sortzea erabaki dugu. Bertan, herritarrek karroza tamaina eta gaia azalduko digute eta ondoren guk, karroza sortuko dugu, beraien nahien arabera (tamaina, kolorea...). Karroza guztiak Euskal Herriko produktu birtziklatuekin sortzen ditugu ingurumenean lagundu ahal izateko.

Gure ustez, enpresa arrakastatsua da gurea. Tolosar guztiak iñauterizaleak dira eta karroza edukitzeko nahi hura txikitatik datorkigu, baina askotan, jendea lanpeturik egoten da karroza bat sortzeak lan handia eskatzen duelako eta esperientzia behar delako. Beraz, koadrilla asko etorriko dira guregana laguntza eske.

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu, iñauteriez gain, festetako “txoznak” ere sortzen ditugula nahi izanez gero.